

## DONOSTIAKO SMART PROIEKTUAK 40 HIRI EUROPEAR ERAKARTZEN DITUZTE

Donostiako Sustapenak European Smart Projects Summit ekitaldia antolatuko du Donostian, martxoaren 26an eta 27an, eta Europako hirientzat, enpresa pribatuentzat, Unibertsitateentzat, zentro teknologikoentzat eta ikerketa-zentroentzat zuzenduta egongo da eta bertan Donostiako Smart estrategia aurkeztuko da.

Kursaal Biltzarren Jauregian Smart Cities arloko goi-mailako adituak bilduko dira hiriek eremu horretan duten etorkizunaz eztabaidatzeko eta ezagutzak partekatzeko. Horrez gain, Donostian Smart arloan egiten ari diren jarduera ezberdinak aurkeztuko dituzte. Halaber, Urumea Ibarreko barrutia bisitatuko dute (Txomin auzoa, 27. Poligonoa eta Ametzagainako parkea), barruti horretan ia zero emisioko Smart barruti bilakatzeko egiten ari diren jarduera ezberdinak ezagutzearen.

Nazioarteko ekitaldi honetan, smart ekosistemako agente ezberdinak bilduko dira, Londres, Rotterdam,artzelona eta Florentzian beste beste etorriko direnak eta esperientziak, ezagutzak eta etorkizuneko erronkak partekatzea du helburu, hiri adimentsuen eta iraunkorren garapenerako funtsezkoak izateagatik. Networkingerako aukera paregabea ere izango da bertaratu guztientzat.

Donostiako Sustapenak koordinatzen du Replicate proiektua, Europako Batzordearen H2020 programaren barnean batera finantzatua (Europako SCC1 Smart Cities and Communities deialdia, hirietan smart ezarpenak egiteko). 2015. urteaz geroztik, guztira 14 proiektu finantzatu dira, 30 milioi euro inguruko inbertsioekin. 40 eredu-hiri eta 53 hiri jarraitzaile ordezkatzeko dituzte, haien ekosistemak leku adimentsuago eta iraunkorrago bilakatzeko.

2019ko lehen seihilekoan, Donostiako Sustapena da 14 lighthouse proiekturen arteko lankidetzaren burua, eta, esparru horretan, Donostian European Smart Projects Summit ekitaldia egingo da.

Eman izena link honetan martxoaren 15a baino lehen:

[Izena eman European Smart Projects Summit](https://replicate-project.eu/)

<https://replicate-project.eu/>

Xehetasun gehiagorako, kontsultatu agenda:

[http://www.fomentosansebastian.eus/images/noticias\\_2019/344\\_project\\_summit/AGENDA\\_European\\_Smart\\_4.pdf](http://www.fomentosansebastian.eus/images/noticias_2019/344_project_summit/AGENDA_European_Smart_4.pdf)

Europako ekimena denez, ekitaldiaren hizkuntza nagusia ingelesa izango da, eta martxoaren 26ko goizeko saioan itzulpen-zerbitzua ere egongo da.

